

elkar

UDAZKENA 2025
81. ZENBAKIA

www.elkar.eus



ANTTON VALVERDE

OLERKIAK MAITE DITUEN
MUSIKARIAREN UZTA JORIA

+

CARLA MONTERO

LA DAMA DE LA NIEBLA, LA OLVIDADA HISTORIA DE LAS PRIMERAS MUJERES PILOTO

ALFONSO DEL RÍO

EL ENIGMA DE ANNE WALLACE, UN THRILLER QUE REMARCA LA DIFERENCIA

IZEN PROPIOAK

JOXE AZURMENDI, JOSU GOIKOETXEA, EDORTA JIMENEZ, AITZIBER ETXEBERRIA, LAURA MINTEGI,
IÑAKI IURREBASO, GARIKOITZ GOIKOETXEA, IRATI JIMENEZ, ANTON OLARIAGA, SANTI PÉREZ ISASI,
MANUEL SEPTIEN, JONE BORDATO, CRISTÓBAL BURGOS, IRATI FERNANDEZ GABARAIN





Etxeko txikienean artean
irakurzaletasuna, sormena eta
ahozkotasuna sustatzeko

ipuinak, komikiak, zientziako infografiak,
denbora-pasak, jolasak, eskulanak




URTEAN 49 euro!

Egin IRRIAREN harpidetza, eta baliatu
gure eskaintza berezia: 10 €-ko bonoa
Elkar dendetan erabiltzeko

NOLA EGIN HARPIDETZA?

- Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz
- www.irria.eus/harpidetza-n izena emanaz

www.irria.eus-en topatuko dituzu
IRRIAREN edukiak eta euskarriak!



berria ekar Katxiporreta

IRRIEN LAGUNAK





IRATI F.G.



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

flickr elkartaldea

elkar_taldea

f elkarTaldea

postdata.elkar.eus

ekar 
www.elkar.eus

ekar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)

Tellebe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA

Gouverneurs 9
559 59 35 14

BARAKALDO
Merindad Uribe 14
944 37 22 76

BASAURI

Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO

Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

Iparragirre 26
94 424 02 28

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6
943 42 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1
Campus
945 14 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9
948 17 55 38

TOLOSA
Arostegieta z/g
943 67 35 33



LA NUEVA AVENTURA DEL
CAPITÁN ALATRISTE

ALEAGUARA

ARTURO PÉREZ-REVERTE



MISIÓN EN PARÍS

REVIVE
LA SERIE POR
SÓLO 10,95 €

DEBOLSILLO

EL CAPITÁN ALATRISTE



VUELVE ALATRISTE
El 3 de septiembre de 2023



EL PUENTE DE LOS ASESINOS

Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.penguinlibros.com
@PenguinLibros

ANTTON VALVERDE

Donostiako taberna batean batu gara, larunbata eguerdia da eta jende asko dago. Musikaz, poesiaz, zaletasunaz aritu da Antton Valverde, zarataz inguratuta. Hauxe da harekin izandako elkarrizketaren laburpena.



55 urteko ibilbidea eta iritsi da antologiak egiteko eta sariak jasotzeko garaia, ez al du bertigorik ematen?

Ba... Ez! Ez dizut esango ohituta nagoenik, nahiz eta oraingoan modu intentsiboan izan den: irratieta, egunkarietan, telebistan ere bai... Ez nuen uste interesa horrenbestekoa zenik.

Musika-zaletasuna etxetik ekarri zenuen, han elikatu zenuen, baina kantagintzarekin topo egin zenuen...

Bai, bai eta urteekin eboluzio bat izan dut, baina estiloa lehengoa da, betikoa. Nik uste dut zerbait jantziagoa dela nire musika gaur egun eta hor nabari da nire gustu musikalak eduki duen eboluzioa. Hasieran, betikoak izango ziren Bach, eta abar... Baina gaur entzuten dudana musika klasikoa beste bat da: Bartok, Stravinsky. Zergatik hasi nintzen kantatzen? Garai hartan zerbait egin behar

zelako, eta nik egin nezakeela pentsatzen nuelako. Orduan egin, eta kito.

Baina herri-musikak ere eragin handia du zure lanean. Badago alkimiarik musika klasikoa eta herri musika nahasteko?

Bai, fijo baietz. Musika herrikoiak beti edaten du bes-tean eta hark edaten du musika herrikoitik. Beethovenek eta, zenbat aldiz erabili zituzten musika herrikoiak bere obretan, eta alderantziz ere bai noski.

Kantuak egiterakoan, berriz, behin baino gehiagotan aipatu duzu gauza sinpleak gustatzen zaizkizula. Nola definituko zenuke sinpletasun hori?

Saltsa askotan ez sartzea. Askotan, musika zenbat eta xumeagoa izan, orduan eta sarkorragoa gertatzen da. Ez dakit konturatuko zinen, baina sekula ez dut sartu bateriarik nire kantu batean.

Beste batzuk, berriz, zure musikaz ari direnean dotorezia eta biluztasuna aipatu dituzte. Gauza bera azaltzeko adjektibo ezberdinak?

Bai, izan daiteke. Esan dizudana sinple, xume... Azken finean, kantaldi batean, edo disko batean, zerbait adierazi nahi da eta hori adierazteko modurik egokiena bilatu eta kito. Hori da.

Zuretzat testua da beti kantuaaren abiapuntua?

Hasieran beti dago testua, eta hori da nire arazoetako bat: ez dudala testurik idazten. Horregatik ibili naiz beti kantu herrikoiekin, eta gero Gandiaga, Lete, Lizardi, Lauaxeta... eta horiek denekin. Eta azkeneko bolada honetan Miren Agur Meabe, Tere Irastortza, Jule Goikoetxea, Itxaro Borda, Arantxa Urretabizkaia, Elisa Rueda...

Beraz, irakurle ona zara.

Ona eta gainera konstantea. Poesia jarraitzen dut.

Poema on batek beti egiten du kantu on bat?

Ez, azken emaitza ona izateko denak egon behar du ondo, bestela... hankamotz geratuko da. Eta berdin alderantziz: musika on bati testu txar bat jarri eta... ez, ez du merezi.

Hain ibilbide luzerako zure produkzio disko-grafikoa ez da oso handia.

Oso handia ez, baina oso txikia ere ez. Ehun eta ez dakit zenbat kantu baditut eginak. Horretara profesionalki dedikatu izan banintz, ziur aski, gehiago nituzke, baina familiako inprentan egiten nuen lan eta horretatik bizi izan naiz. Musika izan da niretzako gauzarik garrantzitsuena, baina ez dut sekula tentaziorik eduki horretatik bizitzeko.

Ez al da kuriosoa zure diskogintzaren erdia baino gehiago 70ko hamarkadan argitaratzea?

1976. urte arte kantaldi asko egin genituen, batez ere Xabier Lete, Pantxoa eta Peio eta Lurdes Iriondorekin, eta gero geldiuene bat egin genuen. Kokoteraino geunden jaialdi estilo horrekin eta jendaurrean kantatzeari utzi genion Xabier, Lurdes eta hirurok. Baina, bai, disko gehienak hamarkada horretakoak dira.

“Bizitzan oso garrantzitsua da norekin zoazen ongi aukeratzea”

Geldialdiaren ondoren beste erritmo batean aritu zara

Gero bai, lasai. Ondoren erretiroa heldu zitzaidan eta ordura arte egiten ez nuen zerbait egin izan dut, baita gaur egun ere: arratsaldero pianoari pixka bat ematen diot, ariketa batzuk egin, poesia pixka bat irakurri, eta zerbait bururatzen bazait, idatzi edo grabatu egiten dut. Horretan aritzen naiz, eta ni horrekin pozik.

Konpositore taula-gaineko musikari bainoagoa?

Bai, orain arte horrela izan da. Jendaurrean nire lana agertzeko laguntza izan dut beti, eta oso ona, Oskarbi-



AZALEKO ETA BARRUALDEKO ARGAZKIAK: JUANXO EGAÑA

kin ibili nintzenean eta, batez ere, Xabierrekin. Xabierrekin kantatzera joate pagotxa zen. Hark egiten zituen aurkezpenak, primeran gainera, eta ni... lasai.

Ez dizu tentatu sekula fokuen aurrean lehen le-rron jartzeak?

Orain Adarra saria eman didatenean, eta aurreko hilabete edo urte pare batean, bakarrik ibili naiz, edo bestela emakume poeten laguntzarekin. Neu izan naiz “protagonista”, eta bueno, ondo aurkitu dut nire burua, ez naiz batere deseroso sentitu. Baina, halere, aitortzen dut ni ez naizela plaza-gizona.

Zer moduz Victoria Eugeniako emanaldia?

Nik uste baino askoz ere hobeto. Gutxitan gertatzen da, baina gauzak atera ziren pentsatu bezala. Aizu, oso kezkatuta nengoen, aurreko egunetan eztarria oso gaizki nuen. Egun pare bat lehenago izan balitz kantaldia ezin izango nukeen eman. Jaunari esker, eztarriak eutsi egin zion; bi ordu eta piko kantatzen! Ematen du jendeari gustatu zitzaioela. Han bertan hori nabaritzen zen, eta gero jaso ditudan iritziak kontutan hartuta, ematen du baietz.

Zure lanaren antologia bat prestatzen ari da Elkar argitaletxea, zer moduz doa?

Bukatzen ari gara, eta nik uste dut urte bukaerarako kaleratuko dutela. Pozik nago. Kantu aukeraketa Angel Valdesek egin du, nik errepasoa eman eta iradokizunen bat egin dut. Bestalde, nitaz hitz egiteko eskatu diot Anjel Lertxundiri. Eta Anjelek oso lan polita prestatu du. Bizitzan oso garrantzitsua da norekin zoazen ondo aukeratzea.

Amaitzeko, hasierara itzuliz: nola ikusten duzu zure burua euskal musikagintzaren ekosisteman hemendik aurrera?

Ni prest nago, deitzen banaute, edozein tokitara joateko eta lan egiteko, bakarrik, elkarlanean beste batzuekin... Ezin dut jakin, ordea, nik egiten dudanak zer harrrera edukiko duen. Gogoa eta motorra baditut, nahiz eta zahar samarra izan, oraindik badut sasoia gauzak egiteko. Eta ahal badut, egingo dut. Barrura begira jarrita, jarraituko dut etxean lanean, hori dut nire bizitza: poesia irakurtzen, ahal badut, musikak ateratzen, indarra dudana arte.

ANDONI TOLOSA
Musikaria

KEN FOLLETT
SE ADENTRA EN UNO DE LOS MAYORES
MISTERIOS DE LA HISTORIA
**LA CONSTRUCCIÓN
de STONEHENGE**

Penguin Random House Grupo Editorial
PLAZA JANÉS



MANUEL SEPTIEN

autor de *Las dos vidas de Martin de Munibe*

Proposamena


UNA PENÍNSULA MÁGICA

Adentrarse en las páginas de *La península de las casas vacías* puede resultar una experiencia que va más allá del mero disfrute de la lectura de una novela más sobre la guerra civil. Su autor desarrolla una escenografía narrativa tan personal como original en la que consigue, además de desarrollar un testimonio antibélico, un relato lleno de hallazgos literarios. No resulta difícil resumir la novela si se cuenta que trata sobre la desestructuración de la familia de Odisto Ardolendo a lo largo de distintos episodios históricos (como el bombardeo de Gernika) en los que sus humildes personajes adquieren una grandeza heroica. El autor, especial-

mente omnisciente -pues dota a sus personajes de cualidades mágicas-, amalgama bajo su especial punto de vista una serie de historias escuchadas a su abuelo en Jaén, aderezadas con la experiencia labrada a lo largo de un trabajo de investigación de quince años y veinticinco mil kilómetros de viajes. Con su repertorio de figuras literarias va envolviendo la realidad de la guerra en un aura imaginaria que la dota de un enfoque especial que se puede relacionar con el realismo mágico, a veces con ecos surrealistas. **David Uclés** cuenta lo que ocurre y lo vuelve literatura, gracias a la virtualidad de su escritura.

Setecientas páginas dan mucho de sí, pero su lectura se hace ligera porque sus capítulos se condensan en unas breves páginas aderezadas de textos que hacen el relato divertido. Los personajes de la familia Ardolendo nos hacen recorrer los rincones del drama que se desarrolló en la península atravesándola con breves e intensos episodios en los que la poética, no exenta de humor, predomina sobre la épica.

En resumen, se puede hablar de una obra de autoficción, novela histórica, fantástica o experimento literario, pero, bajo cualquier etiqueta que se le quiera poner, su lectura no nos dejará indiferentes.



LA PENÍNSULA DE LAS
CASAS VACÍAS
David Uclés
SIRUELA

Profila ANDREA CAMILLERI

GLORIA AL REY DE VIGÀTA



SANTI PÉREZ ISASI

Profesor de la Universidad de Lisboa

Hay muchos Camilleri en **Andrea Camilleri**. El primero, naturalmente, es el autor real, nacido en Sicilia en 1925 y fallecido con la envidiable edad de 93 años. Camilleri tuvo una larga y productiva trayectoria como guionista, director teatral y televisivo, colaborando con la RAI o con la Academia de Arte Dramático de Italia.

El segundo Camilleri, el escritor, estuvo cerca de no llegar a existir. Su primera novela, *El curso de las cosas*, se publicó en 1978 y pasó desapercibida. Afortunadamente, Camilleri no se rindió, y en 1992 publicó la que sería su primera novela de (relativo) éxito: *La temporada de caza*, situada ya en Vigàta (su particular Macondo). Desde ese año y hasta su muerte, Camilleri publicó más de 50 títulos, la mayoría de ellos centrados en la historia (real o ficticia) de su Sicilia natal.

Llegamos así, por fin, al tercer Camilleri, con la publicación en 1994 de *La forma*

del agua, primera novela del comisario Montalbano (evidente homenaje a **Vázquez Montalbán**): un detective indisciplinado e irritable, pero también inteligente, sensible, con un profundo sentido de la justicia y debilidad por la comida (como su modelo, Pepe Carvalho). Junto a él nace también toda una galería de personajes inolvidables: el seductor *Mimí Augello*; el inspector Giuseppe Fazio; el inefable Catarella; Livia, la eterna novia del comisario, o Adelina, su paciente empleada.

En total, el comisario Montalbano apareció en veintiocho novelas y seis volúmenes de relatos, entre 1994 y 2020; fue adaptado por la RAI, lo que contribuyó para su popularidad en Italia y en el extranjero. En la línea de la literatura policiaca más reciente, de **Padura a Markaris**, esta serie compone un retablo de la cultura, la sociedad y la política sicilianas, con una visión crítica y comprometida del mundo.



ARGAZKIA: ASSOCIAZIONE AMICI DI PIERO CHIARA



IRATI JIMENEZ IDAZLEA

IDAZLEAK ESAN NAHI DIGUNA ETA KRITIKOAK ESAN NAHI EZ DIGUNA

Gustatu ala ez, liburu bat kritikatu nahi duenaren zer-egin nagusia liburu hori ulertzea da. Bere gauza on eta txarrekin idazleak planteatu duen ariketa ulertu beharko luke, eta ahalko balu, ariketaren beraren garrantzia. Hori guztia ulertzeko, oster, kritikoak ulertu beharko luke gauza bat: liburuak kritikatzeko tresna-rik inportanteena irakurketak eragiten digun inpresioa da. *El arte de leer* bikainean (Lumen 2013) **W.H. Auden**ek esaten duen moduan, ez da tresna erabat fidagarria -ez baita halakorik existitzen- baina ez dago hori baino hoberik.

Baina kritiko gehienek ez dute uste liburuak ulertu behar dutenik, uste dute liburuak *azaldu* egin behar ditutela. Eta *liburuespaining* egiterakoan, ez digute inoiz esaten zer pentsatu duten irakurtzerakoan, zer sentitu duten, nola eragin dien irakurketak. Hunkitu ote diren. Hase-rratu. Aspertu. Amorratu. Gogaitu. Galdu. Imaginatzen dut ez digutela esaten ez digutela esan nahi eta esango nuke horretarako eskubidea dutela benetan horretarako eskubidea dutela pentsatuko banu. Baina neure buruari askotan galdetzen diot zergatik ez diguten hori guztia esaten. Eta ze eskubiderekin esaten dituzten gero horrenbeste gauza hain gauza oinarritzkoa esaten ez badigute. Batzuetan galdera horien erantzuna ebidente da baina hain da larria pentsatzea kritikoak ez duela kritikatzeko duen liburuak irakurri -edo apenas irakurri- irakurle gehienek ez dutela halakorik inoiz pentsatzen.

Baina esan beharrik ez dago eta hala ere esan egingo dut liburuak irakurtzeko direla. Horretarako existitzen dira. Irakurtzen ez diren bitartean kontenitzen duten literatura ez dago bizirik. Norbaitek irakurtzen duenean sortzen da, eta irakurtzen ez duenean hiltzen. Ez dago besterik.

Karmele Jaiok, bere nobeletan genero harremanak akaso beste euskal idazle garaikide guztiek baino hobeto ulertu dituen nobelagileak -*Amaren Eskuak* (Elkar, 2006), *Aitaren Etxea* (Elkar, 2019) eta *Maitasun Kapitala* (Elkar, 2023) trilogian frogatu duenez-, aspaldi esan zidan bere nobela bat zertaz doan galdetzen diotenean, kostatzen zaiola erantzun egokia bilatzea. Azken baten, berak nobela oso bat behar izan duelako galdera horri erantzuteko.

Eta hori da kontua. Kritikoek batzuetan kontrakoa pentsatzen duten arren, nobelak ez direla arazo intelektualak. Gai asko planteatu ditzakete, asunto asko, baina ez daude hori asunto bat edo beste planteatzeko. Berriki irakurri dudana *Puntobobo* (Erein, 2024) miresgarrian hainbat kontu planteatzen ditu **Itxaso Martinek** amatasunari eta buru osasunari buruz, besteak beste. Baina eleberri bat ez da eztabaida intelektual bat, ez da po-



ILUSTRAZIOA: ANTON OLARIAGA

sizio moral baten defentsa bat, ez da tertulia baterako gaia. Eleberria eleberria da. Istorio bat kontatzen du. Eta ulertu nahi duenak, irakurri egin behar du, eragin dion inpresioa aztertu eta inpresio hori ulertzerakoan, liburu bera mekanismo bezala ulertu. Liburuak zer esan dion, hori da interesgarria, ez liburuak zer esan nahi duen edo okerrago, liburuarekin *idazleak* zer esan nahi zigun. Bi gauza horiek irrelebanteak direla esango nuke, eta lehena absurdoa bada, zer esanik ez bigarrena. Idazleak esan nahi ziguna esan digulako: istorio bat kontatu nahi zigun eta kontatu egin digu.

G. K. Chestertonek *El alma del ingenio* (Ed. Renacimiento, 2022) zoragarrian kontatzen du inolako ikasketarik gabeko emakume bat joan zela *Hamlet* (Elkar, 2012) ikustera eta bukaeran zer iruditu zitzaion galdetu ziotenean "oso triste" erantzun zuela. Hori da kritikoek inoiz ahaztu beharko ez luketena. Literaturaren historian planteatu den arazo intelektualik apasionanteena ere ez dela arazo intelektual bat. Istorio bat da. Botere-tsua, itzalezina, liluragarria, amaiezina. Eta gehiegitan kritika literarioarekin pasatzen den bezala triste, oso triste.

JOSU GOIKOETXEA

**Josu Goikoetxeak (Gernika, 1973)
Joseba Jaka bekaren laguntzaz
Lakioa idatzi du, bere bigarren liburu
eta lehenengo ipuin-bilduma, bere
sakontasun zein kalitateagatik
zeresana emango duena.**

ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR



Zazpi urte dira zure lehen poesia-liburua kale-ratu zenuela, *Zer luzea negu hau*. Orain, berriz, ipuin-bilduma bat. Urteotan apurka idatziak dira? Azkenaldian batik bat?

Berrogeita bost urterekin poema-liburua argitaratu ostean, galdera egin nion neure buruari: "Eta orain zer, Josu? Jarraitu nahi duzu?" Eta erantzuna baiezkoa izan zen, "baina trankil, e". Uste dut lehen ipuina, *Hiltzailea*, 2019ko udan idatzi nuela, oso azkar, astebete-edo, ideia buruan bueltaka luzaroan erabili ostean. Ondoren idatzi nituen *Gaua eta gero* eta *Su bat muinoan* (bekara aurkeztuak hirurak), eta liburuko beste pare bat ipuinen hasierak ere bai, aldartea eta egokiera uztartzen ziren egunetan, oso noizbehinka. Beka lortu ondoren, gainerakoa etorri da. Aurrekoekin alderatuta martxa bizkorrean, baina patxadatsu, nolanahi ere.

Eta zergatik ipuinak? Generoarekiko atxikimendua?

Berdin gustatzen zaizkit ipuinak zein nobelak. Nik pro-

sarekin probatu nahi nuen. Erronka moduko bat zen, orain arte batez ere poesia idatzi izan dudalako. Nahiko ipurterrea naiz idazteko orduan, eta prosak eskatzen dizu beste egonarri bat. Gero konturatu nintzen ipuinek, bat amaitzean, berriro zerotik hasiatez eskatzen dizutela hurrengoan, behin eta berriro, behin eta berriro. Terriblea da.

Liburuko istorioetan askotarikoak dira gaiak...

Horretara jarrita zaudenean, bertso saioetarako gaiekin egiten duzun bezala, salabardoa botata daukazu, baina hemen sare arteko zuloak nasaia goak dira eta gaiekiko exijentzia, ba, handiagoa. Orduan, bat ustez ona harra-patzen duzunean, ez duzu eskapatzen uzten.

Askotarikoak kontaketa-teknikak eta estiloak ere...

Hor etorri da lan zehatzagoa, istorio bakoitzak behar zuen tonua, lexikoa eta ikuspuntua jorratzekoa. Astiro egindako lana izan da, hiztegietan asko begiratzekoa,



LAKIOA
Josu Goikoetxea
ELKAR

paragrafo bakoitzaren arnasa gutxi gorabehera ondu samar eduki arte hortxe gelditu egotekoa.

Giro eta kokalekuetan, oster, badira konstante batzuk...

Asko maite dudana poema liburua da **Jabi Santa Cruzen Baso ilun itoan** eta horkoa da hasierako aipuetako bat: "Denok eta bakoitzak dugu kontaezina den zerbait. Lakioan harrapatuta gaude ezinbestean". Lakio horrekiko dialektikan bizi gara gizaki gehienok. Eta hortik ipuinok ere.

Asko bizi izandako norbaiten narrazioak dirudite zureek.

Zorion txarrez, bizimodu oso arrunta da nirea, baina, bestalde, jende interesgarri asko ezagutu dut bizitzan zehar, eta arreta jarri dudala uste dut. Eta asko irakurri dut, oso-oso txikitatik.

Beka baten bultzadaz idatzi duzu. Nolakoa izan da prozesua?

Horrelako onarpen eta sariek prozesua asko bizkortzen dute. Zeure kolporako idazten ari zinenak beste batzuen onespina daukala jakiteak konfiantza indartu eta idazten jarraitzeko gogoia berritzen du. Eta ordainsaria ere badago hor, noski. Zakura dirua, bizimodua ez dago erraza eta.

Eta hurrengo zure proiektua?

Ez dakit. Badauk hor prosazko zerbait idatzita, berriro irakurri eta horren txarra iruditu ez zaidana. Edo agian poemetara itzuliko naiz, hortxe daukat etxea. Ez dakit. Ea zer datorren biderra.

XABIER MENDIGUREN
Editorea



Laura Mintegi

« Subjektibitate prozesuetan zer gertatzen den jakin nahi izateak eramaten nau gizakia behatzera. Eta behaketa horrek eramaten nau nobelak idaztera »

txalaparta



ALFONSO DEL RÍO

Tras vender miles de ejemplares de *La ciudad y la lluvia*, Alfonso del Río (Bilbao, 1980) regresa con *El enigma de Anne Wallace* un thriller sobre una enigmática pianista que acaba convirtiéndose en la principal sospechosa de un crimen.

FOTOGRAFÍA: XXX



EL ENIGMA DE ANNE WALLACE
Alfonso del Río
GRIJALBO

verdad que cada personaje y su psicología son algunos de los aspectos que más me gusta desarrollar. Lo cuido mucho.

Toca temas como la enfermedad, la genialidad, la exclusión, el arte, la locura... ¿Qué aspectos sociales pretende retratar?

Quiero expresar que "lo distinto", como es el autismo de Anne o la forma de ver la vida de mi investigador, o la cuerda locura del maestro Chillida... no deberían ser estigmas, sino matices que enriquecen el mundo. Lo que los demás pueden ver como punto débil, mis personajes lo usan como quicio para construir su magia, su fortaleza, su arte.

En algunos momentos, Anne dice frases como "¿Qué más da morir cuando ya estás muerta?"

Vivimos de espaldas a la muerte, al dolor, como si eso nos hiciera más felices. Pero lo que no es verdad, lo que no es auténtico, no puede hacernos felices. Y la verdad es que cualquier vida está salpicada por el dolor. Anne Wallace es una persona con una gran inteligencia y sensibilidad: disfruta de la vida a través de la belleza y el arte, pero consciente de la redención que se encuentra en los malos momentos.

KAROLINA ALMAGIA
Periodista

Mezcla de diferentes géneros, cierto lirismo... ¿Cómo definiría esta novela?

Es un thriller, pero envuelto en un relato policíaco típico de "quién cometió el crimen" (estilo Agatha Christie). Hay un atentado en el premio Príncipe de Asturias y los siete premiados se convierten en siete sospechosos. Colaboro en el mundo audiovisual y busco enganchar al lector con la misma técnica que las series.

¿Por qué eligió el marco de la entrega de los premios Príncipe de Asturias de 1987?

Porque siempre creo que las historias tienen tres componentes fundamentales: trama, personajes y contexto. Intento que el contexto sea un personaje más, que cobre un protagonismo, que sea de suficiente entidad como para reclamar atención por sí mismo.

Anne Wallace es una protagonista atípica. ¿Qué retos le planteó construir una voz narrativa tan singular y excéntrica?

Era muy arriesgado plantear una protagonista tan inteligente y sensible para la música, pero a la vez con un Trastorno de Espectro Autista (TEA), que no puede mostrar emociones, pero sí deja en evidencia sus caren-

cias. Tiene, además, un punto mitológico y de amor a la naturaleza casi ancestral: como si fuera lo único que le conecta al mundo. Por eso le llaman *Sorgina*. Tuve que trabajar mucho el personaje y, por supuesto, documentarme y hablar con expertos en el TEA.

“Las diferencias no deberían ser estigmas sino matices que enriquecen el mundo”

¿Qué papel juega la música como lenguaje paralelo a la palabra en la novela?

La música es fundamental en esta historia. Es difícil leer (y escribir) "oyendo" la música, pero es lo que he pretendido en esta historia. Cada una de las piezas que interpreta Anne está escogida por algo.

¿Qué le interesa más como narrador, el enigma, la psicología o el estilo literario?

Todos son importantes. El estilo es algo obligatorio. El enigma lo uso para poder enganchar al lector. Pero es



JAVIER CASTILLO
MÁS DE 2.500.000 EJEMPLARES VENDIDOS

¿QUÉ HACER CUANDO EL FUEGO RUGE BAJO NUESTROS PIES?

SUMA



ARGAZKIA: TXALAPARTA

Sheenak Manu bikotekidea hil duela daki hasieratik Laura Mintegiren *Akabo* nobelaren irakurleak, baina hiltzailea horretara eraman duen bideak kontu askori buruzko gogoetara bideratuko du. Eskoziako gaelera du ama hizkuntza Sheenak; Manuk, berriz, euskara. Bien arteko gertutasuna indartzen du biak hizkuntza minorizatu bateko hiztun izateak, baina laster sortuko dira arrakalak, liburuaren atariko aipuak iradokitzen duen moduan: “Maitatua urrunegi doanean bere buruarekiko traizioan eta bere buruaren engainuan irauten duenean, maitasunak ez dio gehiago jarraitzen” (Jacques Lacan).

Maitasun harreman baten bilakaera kontatzen du nobelak, hasiera erromantikotik elkarren aurkako gatazka eta ezinikusietaraino, baina ezohikoa da bilakaera horretan hizkuntzak eta hizkuntzei buruzko ikuspuntuak duen garrantzia. Uste dena baino eragin handiagoa duen faktorea da maitasun harremanetan, eta giza harremanetan oro har?

Maitasuna erakarren fisiko hutsean oinarritu daiteke, ala bi pertsonen eraikitzen duten bizitza-proiektu partekatuan. Proiektua eraikitzeko ezinbestekoa da komunikazioa: elkarri adierazi nola begiratzen dioten munduari eta ibilbidea elkarrekin egiteko konpromisoa hartu. Maitasun erromantikoak iraungitze-data du, baina amankomuneko proiektua bizitza osoan zehar luza daiteke. Komunikazioa hautsi egiten bada, proiektuarekiko fidelitasunak huts egiten du. Ez dut ulertzen maitasun iraunkorra, konpromisorik eta komunikaziorik gabe. Traizioa dator komunikatzeari uko egitetik.

Sheenak uste du, Lacanek bezala, “hitzen munduak sortzen duela gauzen mundua, eta ez alderantziz”. Ados zaude?

Hitza abiapuntua da, bai. Hitzak sortzen du pentsamendua. Hitzaren indarra klase-borrokan eta botere harremanetan ere ikus daiteke. Bi adibide xume jarriko ditut. **Dario Fo** italiarrak esaten zuen langileak 300 hitz dakizkiela eta ugazabak 1.000. Hor badago abiapuntuko desberdintasuna ahalmen ekonomikoan. Beste adibidea: *Is-piluaren bestaldean* nobelan Humpty Dumpty-k diotso Alice-ri: “nik hitz bat erabiltzen dudanean, hitz horrek esan nahi du nik nahi dudana, ez gehiago ezta gutxiago ere. Nor den nagusia, hori da guztia”. Botere kontua da.

“Hizkuntza kontu intimoa da”, dio une batean Manuk. Sheenaren, bestelako ikuspegi batetik begiratuta, hau dio: “Inor ez da hizkuntza baten jabea, hizkuntza ez da norbanako bakar baten ondasuna”. Bi esaldiak bateragarriak dira?



AKABO
Laura Mintegi
TXALAPARTA

Kontraesana ematen du, baina ez da. Egia da hizkuntza kontu intimoa dela, eta euskaldunok (areago euskaldun berriok) fisikoki sentitu dugu nola hizkuntzaz jabetzeak (eta ez-jabetzeak) eralda ditzakeen gure izena eta izana. Baina, aldi berean, hitzak erosi eta saldu daitezke, eta boteretsuek ezabarazi eta metatu ditzake, indarraren indarrak. Hitzak egiten gaitu eta, kontrara, hitzak desagerrarazi gaitzake. Ez gara konturatzen zenbatzerainoko indarra daukan. Botereak bere egin nahi du hitza, hizkuntza, ideologiaren sortzaile eta transmisorea delako. Horregatik kontrolatu nahi du hizkuntza etxe barruan, eskolan eta komunikabideetan.

“Botereak bere egin nahi du hitza, hizkuntza, ideologiaren sortzaile eta transmisorea delako”

Hilketa batekin hasten da nobela, baina hasieratik daki irakurleak nor den hiltzailea. Jakin nahi du, ordea, zerk eraman duen horretara hiltzailea. Lan handia eman dizu horri buruzko informazioa antolatu eta dosifikatzeak? Zaila izan da pertsonaiak landu eta haien bilakaera sinesgarri egitea?

Bai, lana ematen du hilketa bat justifikatzeak, arazo baten aurrean bestelako irtenbideak egon daitezkeelako, ez horren tragikoak. Baina lan handiagoa ematen du pertsonaiak eraikitzeak, ezerezetik norbait sortzea. Urtetako prozesua izaten da, nire egunerokotasunean sartzen dira, nirekin bizi dira, ikusi eta entzun egiten ditut, ia-ia hezur-haragizkoak bihurtu arte. Sormen lanak eskizofreniatik, paranoiatik eta neurositik dosi handiak ditu: sortzaileok bizitza paraleloa bizi dugu, existitzen ez dena ikusten dugu eta obsesionatu egiten gara.

JUAN LUIS ZABALA
Idazlea

FOTOGRAFÍA: AMAYA AZNAR

CARLA MONTERO

***La dama de la niebla* homenajea a las mujeres piloto de los albores de la Segunda Guerra Mundial y también a todas esas personas anónimas que se vieron enfrentadas, sin saber realmente por qué, en una contienda brutal que cambió el curso de la historia. También es una novela de amor, y de aventuras. Una narración que apuesta por contar las existencias de seres humanos corrientes que vivieron situaciones extraordinarias.**

¿Qué encontrarán las personas que abran las páginas de *La dama de la niebla*?

Sobre todo, una gran historia de amor. Pero lo que la hace especial es el momento, el lugar y el ambiente en el que se desarrolla. Y es que la protagonista de *La dama de la niebla* está basada en las historias de las primeras mujeres que compitieron en los grandes premios de automovilismo, que son los precursores de la actual Fórmula 1. El lector se va a adentrar por tanto en ese mundo de glamur, emoción y peligro de la alta competición de coches en la década de 1930, la llamada Era Dorada. Precisamente este momento histórico, previo a la Segunda Guerra Mundial, y el hecho de que el automovilismo reuniera a hombres y mujeres, jóvenes la mayoría, de todos esos países que luego se enfrentarían

en el campo de batalla, me permite explorar, a través de los personajes, las relaciones humanas en un momento en el que Europa ya se veía camino del conflicto.

Vuelve a la Europa de la Segunda Guerra Mundial. ¿Qué le atrae de este periodo histórico?

En este caso he querido explorar esos años previos a la Segunda Guerra Mundial, cuando se gesta el conflicto, y ver cómo se vivía a nivel de la calle, cómo era el ambiente prebélico entre la gente corriente. A mi modo de ver, la Segunda Guerra Mundial es interesante no sólo en cuanto a lo político y lo estrictamente bélico, que son aspectos más tratados, sino que hay todavía mucho que contar y que analizar en su dimensión más humana, es decir, cómo la guerra, y también la preguerra y la



LA DAMA DE LA NIEBLA
Carla Montero
DESTINO

postguerra, lo transforman todo: lo social, lo cotidiano, lo familiar... Cómo afecta al arte, al entretenimiento, a la literatura, al cine y, como es el caso de *La dama de la niebla*, al deporte.

¿Cuál es la fase de construcción de una novela que más disfruta?

Disfruto mucho de la investigación, de esa labor minuciosa de ir descubriendo anécdotas, personajes y modos de vida, de saber más sobre lo que nos antecede y que conforma lo que somos en la actualidad como individuos y como sociedad. También es un reto que me encanta el emplear toda esa información para la historia que quiero contar sin que resulte aburrida o abrumadora, sino que fluya con el relato de ficción.

Y, a pesar de todos los años que llevo escribiendo, la parte que más que cuesta sigue siendo la de enfrentarme a la primera página en blanco, cuando está todo por hacer: los personajes por perfilar, la trama por tejer... Afortunadamente, y hasta ahora, la magia se acaba por producir.

¿Para quién escribe? ¿Piensa en las personas lectoras o escribe para usted misma?

Procuró escribir para mí, creo que es la única forma de que el producto final sea honesto. Confío en que si yo disfruto de la historia que estoy contando mis lectores también lo harán.

QR

TERESA SALA
Periodista



LA CONMOVEDORA LUCHA DE DOS MUJERES POR DEFENDER EL PODER DE LOS LIBROS EN TIEMPOS DE GUERRA

Una carta de amor a los libros en los tiempos más oscuros de la II Guerra Mundial



MAEVA



DESAGERTUTAKO ALABAREN BILA

Erruki onez (*Small Mercies*) Dennis Lehaneren nobelarik berriena euskaratzea garrantzi handiko apustu literarioa da, bai autorearen prestigioagatik, bai obraren potentzia narratibo eta sozialagatik. Lehane AEBetako eleberririk garaikidearen izen handienetako bat da, nazioartean ibilbide sendoa du eta proiektzio mediatikoa literatur esparrutik askoz harago doa. Bere eleberririk dozenaka hizkuntzatarantz itzuliak izan dira, horietako asko zinemara arrakastaz eramanak (*Mystic River*, *Shutter Island*, *Gone Baby Gone*), eta irakurle oinarri zabala dute. Irakurle horiek Lehaneren estilo arina balioesten dute, pertsonaia konplexuak eraikitze haren gaitasuna eta Estatu Batuetako gizartearekiko begirada kritikoa.

Erruki onez autorearen ibilbideko puntu gorena da. 1974ko uda beroan Bostonen girotutako eleberririk honek thrillerraren osagai klasikoak ditu —tentsioa, krimena, ikerketa, indarkeria—, eta garai aztoragarri hura markatu zuten arrazakeria eta klase gatazken azterketa sakonarekin lotzen ditu. Desagertutako alabaren bila etsi-etsian dabilen Mary Pat Fennessy ama kementsuaren

figuraren bitartez, Lehanek kontakizun bat eraikitzen du, non intimotasuna eta politikotasuna pitzadurarik gabe uztartzen diren. Bilaketa pertsonala ezinbestean bihurtzen da infernuetara jaiste bat, arrazismo estrukturalaren, ustelkeria instituzionalaren eta desilusio sozialaren egoitza ilunera.

Nobela honen indarra ez datza soilik bere trama adiktiboan edo bere eraikuntza narratibo bikainean, baizik eta bere egokitasunean. Erabateko gaurkotasuna duten gaiak jartzen ditu mahai gainean Lehanek: arraza-segregazioa, bestearekiko beldurra, poliziaren indarkeria, komunitateen arteko haustura. Gizarte-tentsioak desagertu ez diren testuinguru global batean —aitzitik, sarritan areagotu egin dira—, *Erruki onez*ek gaurko edozein irakurle interpelatzen du. Identitateari, botereari eta bazterketari buruzko hausnarketa kritikoa ere eztabaida kulturalaren parte da Euskal Herrian, eta oihartzun eta lotura esanguratsuak eskaintzen dizkigu euskal komunitatearentzat.

Liburuaren itzultzailea eta haren eskarmentua ezin da aipatu gabe utzi: Koro Navarro.



ERRUKI ONEZ


Dennis Lehane

Itzultzailea: Koro Navarro

IGELA ARGITALETXEA

RESET

Reset nobela distopikoa kaleratu berri du Aitziber Etxeberriak (Zarautz, 1973). Zientzia fikzioan murgildu da egilea, gaurkotasun handiko gaietan sakontzeko.



RESET

Aitziber Etxeberria
EREIN

Mundua azkar ari da aldatzen eta, orain, teknologiaren menpe ere bizi gara.

Kezka handia sortzen dit teknologiarekiko daukagun menpekotasunak. Dudarik gabe, oso erabilgarriak dira teknologia berriak, eta gure bizitzak erabat aldatu ditu, baina iruditzen zait, beste alderdi batzuetan, okerrera egin dugula. Ni trenean eta autobusean asko ibiltzen naiz, eta ikusten dut elkarri aurpegira begiratu ere ez diogula egiten, apenas. Mugikorrari begira gaude eten-gabe eta mundu paraleloetan bizi gara. Horrek guztiak harremanetan jartzeko orduan arazoak ekarri ditu, eta hor sakondu nahi nuen.

Gaurkotasun handiko gaiak ere lantzen dira nobela distopiko honetan: klase sozialak, ingurgiroa, kontrola... Denak kabitu zaizkizu.

Bizitzen ari garen momentu hau gogorra dela iruditzen zait, aldaketa handikoa, eta uste dut gizarte gisa nahiko noraezean gabiltzala.

Liburuaren beste harietako bat da deskarbonizatze prozesuaren afera.

Aldaketa klimatikoarena ez da nolanahiko gaia. Uste dut gizartearen gehiengo batek onartu duela gaiari

aurre egin beharra daukagula, baina ez dut uste bidea asmatzen ari garenik.

Zak21 eta Mara dira protagonistetako bi, antagonistak biak.

Klase sozial desberdinekoak dira, eta desberdintasun horrek pisu handia du gizarte berrian. Zilarrak pribilegiadunak dira eta karbonikoak menpekoak, beraz, haien bizitzak erabat desberdinak dira. Bat botereatsua den neurrian eta bestea menpekota da, eta beren bizitzekiko ikuspegia ere oso bestelakoa da, baita helburuak ere.

Zientzia fikziozko eleberria izateak idazkera baldintzatu al dizu?

Nire beldurrik handiena zen eraiki dudana gizarte berri hori sinesgarria izatea. Prozesuaren hasieretan, etengabe egiten nion galdera hori neure buruari. Bidea egin ahala neurria hartu nion generoari, eta eroso sentitu naiz.

ANA ABARISKETA

Kazetaria

» Zer izango litzateke Euskal Herria euskarazko egunkaririk gabe?

BERRIAk doan eskaintzen ditu edukiak sarean, konprometituta baitago euskararekin eta gizartearekin. Baina garai zaila da hau hedabideen negozio ereduarentzat, eta inoiz baino gehiago behar dugu irakurleen babes ekonomikoa. Irakurlea bazara, **egin ekarpena**:

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro egunean)

Gazteen* ekarpena

30€

(*) 30 urtetik beherakoak

Ekarpen berezia

120€

aukeratu zenbatekoa
(urtean 120 € edo gehiago)



ESNATU ALA HIL

Euskararen egoera ulertzeko giltzarria izango den liburua idatzi dute Iñaki Iurrebasok (Legazpi, 1967) eta Garikoitz Goikoetxeak (Elduain, 1989), azken mendearen errepasoa eginez, diagnostiko gordina datuetan oinarrituz, eta etorkizunerako gakoak aurkeztuz.

Liburuaren oinarria Iñaki Iurrebasoren dokto-re-tesia da, eta tesi horretako edukiak egokitu, osatu eta gaurkotu egin dituzue, edozein irakurlek erraz ulertzeko moduan. Zein helbururekin?

Ekarpen bat egin nahi izan dugu. Euskararen aurrerabideari buruzko kezka hedatzen ari den honetan, euskararen osasuna aztertu dugu, ikuspegi demolin-guistikoan oinarrituta: datuak eta gogoetak. Maiz, iritzi hutsetan oinarritzen dira balorazioak, baina, etorkizuna egoki irudikatzeak, oinarri sendoa behar dugu. Horretarako ahalegina egin dugu.

Diagnostiko horretarako, hiru etapako eta zazpi geltokiko ibilbidea proposatu duzue. Oraindik ere beharrezkoa da honaino nola iritsi garen eta non gauden erakustea?

Biharkoa ikusteko, gaurkoari begiratu behar diogu, eta, gaurkoa ulertzeko, atzokoari. Azken mendean hiru garai bereizi ditugu: galera (1900-1970), goraldia (1970-2000) eta geldialdia (2000tik hona). Ibilbide hori funtsezkoa da euskararen egoera zein den ulertzeko.

Lehenengo etapam, oinarritzko ardatzei buruzkoan, hiru geltoki dituzue: gaitasuna, erabilera eta atxikimendua. Zer nabarmenduko zenukete?

Uste oker asko dago. Mezu hau zabaldu ohi da: *Gaitasunean asko aurreratu du euskarak, hori du indargunea, baina erabilera ez da berdin igo, eta hori lotua dago atxikimendu faltarekin*. Ez. Datuak aztertuta, kontrakoa ikusi dugu: atxikimendua da indargunea; testuingurua ikusita, erabilera handia da, espero litekeena baino handiagoa; eta hutsune nagusia gaitasuna da.



ARGAZKIA: ELKAR

Bigarren etapam, hizkuntza-bilakaera, sozializazioa eta aldaketa demografikoa dira geltoki nagusiak, eta inertiak atzerantz bultzatzen duzuela erakutsi duzue.

Euskarak herritarren bizialdian bilakaera negatiboa du askotan. Alegia, hiztunak oro har hartuta, urteen joanarekin kamustu egiten da gaitasuna, baita erabilera ere. Horra botilaren zuloa. Botila betetzeko giltzarria izan da belaunaldi berrien sozializazioa: bai eskola, bai familia-transmisioa. Botila betetzen eta botila husten, bi mugimendu kontrajarri horien erdian, bilakaera demografikoa: ez da euskararen mesederako izan, eta ez da izango.

Lurralde-nagusitasunari heldu diozue azken etapam, gunerik euskaldunen eta arnasguneen gainbehera erakutsiz. Hain garrantzitsua al da arnasguneei eustea?

Aurrera egiteko zorua arnasguneetan dago, eta, horiek aihulduta, asko zailtzen da aurrerabidea. Tokian tokiko errealitatera egokitutako politikak behar dira, eraginkortasuna bilatu, eta arnasguneak baliatu gainerako eremuak euskalduntzeko. Helburu giltzarri bat: arnasgune-izaerako lurralde-eremu ahalik eta jarraituena eta zabalena izatea, non euskara izango den nagusi. Baina kontrako bidean goaz: arnasguneen suntsitzen.

“*«Gordina da errealitatea: edo jauzi bat aurrera, edo atzerantz hasteko arriskua»*

Aurrera begirako hausnarketetan nabarmendu duzue euskarak beste bultzada bat behar duela. Liburuaren izenburua ere ‘Esnatu ala hil’ da. Hain gordina al da egoera?



ARGAZKIA: ELKAR

Euskara ez dago osasuntsu, eta esan egin behar da: minorizazio gorrian dago. Aski da ikustea zer dioten oinarritzko adierazleek. Irudi bat: kontrako bidean datorren eskailera mekanikoan gora egin nahi izatea, hori da Euskal Herri gehienean euskaraz bizi nahi izatea. Horrek zera esan nahi du: edo egiten da eskailera gainditzeko adinako esku-hartzea, edo eskailera are gehiago aihulduko du euskara. Azken hamarkadetan egin da bidea, ahalegina aitortu behar da, baina euskara ez dago indartsu. Eta testuingurua ez du aldekoa.



ESNATU ALA HIL
Iñaki Iurrebaso
Garikoitz Goikoetxea
ELKAR


Beraz, gauden egoeran, zein da aurrera egiteko bidea?

Oinarritzko hiru pauso: lehenik, egoera ondo ulertzea, diagnostikoan bat etortzea; bigarrenik, helburuak eta lehenetasunak egoki finkatzea, aukerak eta hutsuneak aztertuta; eta, hirugarrenik, estrategietan asmatzea. Garai giltzarria da euskararen indarberritzean, eta ohar-tu egin behar da horretaz: lehenetasunetara ekarri, eta egiturazko pausoak eman. Gordina da errealitatea: edo jauzi bat aurrera, edo atzerantz hasteko arriskua.

GARI BERSALUZE
idazlea

EDORTA JIMENEZ

Edorta Jimenez Ormaetxea (Mundaka, 1952) nobela berri batekin datorkigu, *Aizkorak eta gutunak*, egiazko krimen baten gaineko ikerketa, thriller-aren eta nobela historikoaren osagaiak dituen. Bilboko Posta kaleko Palma tabernan egin dugu elkarrizketa. Zapata-denda izan da berriki arte. Hor erosten zizkion amak zapatak Edorta umeari.



ARGAZKIA: XXX

Zapatariak badute nobelarekin lotura, izan ere...

Zapataria da hain zuzen eleberriko pertsonaiarik jakintsuena. Badaki ganoraz idazten, eta ezinbestekoa du ofiziotik kanpoko zereginetarako. Kasik-kasik idazlea dela esan liteke. Sortzailea, bederen, bada. Nobela honetan egin dudana idorokuntzarik lortuena gutun-izkiriatailearena izan da, nik uste.

XIX. mende hasierako Bizkaia astindu zuten gertaera lazgarri batzuk ditu eleberriak oinarritzat...

Gertaerok, 1828ko iraila eta 1829ko apirila bitartean izan ziren, batik bat. Dena dela, haien ondorioak Lehen Karlistaldiraino iritsi ziren. Almikan (Bermeo) emakumezko batek, beharbada bik, ama-alabak, batetik senarra eta besteak aita zutenari heriotza eman zioten. Aizkorakadez. Urte erdi inguru igarota, bietako bat garrotez hil zuten, Bilboko plazan, goizeko hamaitan.

Borrero arrotzaren eta garrotearen aurka garraasi egiten du jendeak Bilbon, hiltzailearen alde.

Bizkaiko semeek ez zeukaten borrero lana hartzerik, denak aitoren seme izanik, halako jopu-ofizioak ez baitzeitozen haien estatusarekin bat. Borreroak gorrotatuak ziren, halako moduan non irain handia zen inori borrero esatea. Kontakizunean bada hausnarketarik borroeroez ere. Bestela, balizko irakurleari utzi diot 1829ko hartan borroeroei herritarrek erakutsi zioten herra eta heriotza ematekotan ziren emakumearen alde agertu zuten errukia, gupida edo dena delakoa, zer zela-eta izan ziren erabakitzea. Horretarako lorratzik ez du faltako.

Senarraz gain, erakundearen aparatua dauzka: gu: alkatea, korrejidorea, eskribaua, apaiza, epailea, abokatua, fiskala, borroeroa... guztiak gizonak eta gaztelaniaren jabe; bestetik, emakume baserriar bi: euskaldun elebakarrak, hiltzaileak, epaituak, zigortuak.



AIZKORAK ETA GUTUNAK
Edorta Jimenez
ELKAR

Zein garaturik zegoen errepresio aparatua eta zein babesgabe emakumeak, hizkuntzagatik besteak beste, zinez harritu nauten gaiak dira. Dokumentazioak, oster, ez dio gezurrik. Halaxe zen; eta halaxe ote da egun ere?


Emakumeen abokatuarena egiten duenaren diskurtsoa, laster etortzekoa zen gerrako bando batek hartuko duen diskurtsoa da. Alde horretatik, pozik nago egin dudana lanarekin.

Nobelako beste emakumeak ere historiako alde ilunetik argitara ekarri ditut, aztertu dudana dokumentazioari ezertan traiziorik egin gabe. Gure amama tarteka-tarteka herritik Bilbora joaten zen, sorkia buruan eta arrain otzara hantxe. Nobelan agertzen den bideak liluraturik nauka. Horrekin batera, ziur naiz irakurleak maiteko dituela bide horretan gora eta behera dabiltzala ezagutuko ditugun beste pertsonaia batzuk ere. Mundu bat berreraikitzen saiatu naiz, tabako-kontrabando eta guzti.

***Aizkorak eta gutunak*-en amaierak zabalik uzten dio jarraipenari bidea. Baserri eta mendi giroko trilogia baten aurrean gauzak, *Piztien itsasoa* ozeanikoaren pareko?**

Hasita daukat bigarrena, eta buruan hirugarrena. Horiek burutzeko osasuna da behar dena.

MARKOS ZAPIAIN
Filosofoa



CALIFORNIA, 1849.


Cuando el oro desató la locura,
el amor marcó el rumbo.

LUZ GABÁS,

autora de *Palmeras en la nieve* y *Lejos de Luisiana*,
nos vuelve a regalar una gran historia que late con fuerza.

PERIODISMO LITERARIO

Un fino hilo une a John Reed con Amets Arzallus. Quizá sea, más bien, una recia sogá marinera, capaz de aguantar embestidas de turbulentas tormentas oceánicas. Es la cuerda que sostiene la vela del periodismo literario, aquel que cose con calidad literaria testimonios reales para dar fe del mundo que nos rodea, por horrible que sea.



Vivimos un periodo oscuro. Somos testigos de hechos que hace no tanto nos hubieran parecido inimaginables. Y, justo ahora, el periodismo se bate en retirada ante el formidable embate de viejos bulos y nuevas *fake news*, el culto al consumo rápido de imágenes y titulares, y la llegada de realidades creadas por inteligencia artificial. Podemos ahogarnos en sobreinformación sin saber nada de nada.

Afirma **Martín Caparrós** que “antes periodismo era contar lo que alguien no quiere que se sepa; ahora, cada vez más, periodismo es contar lo que muchos no quieren saber”. Sostiene el autor de *El Hambre* que los libros se han convertido en el espacio donde publicar los reportajes que los grandes medios no quieren acometer o no están dispuestos a difundir. **Leila Guerriero**, otra autora insigne del gremio, precisa que ese periodismo literario requiere una mirada (ver lo que otros no ven) y la certeza de que no da lo mismo “contar las historias de cualquier manera”.

Desde que en 1972 **Tom Wolfe** difundiera el término Nuevo Periodismo, son muchas las publicaciones que se han agrupado en torno a lo que también se llama periodismo literario o periodismo narrativo, es decir, la tradición periodística de contar la realidad a través de historias con calidad literaria. Sin embargo, ya a principios del XX, autores como **John Reed**, con sus magníficos *Diez días que estremecieron al mundo* y *México Insurgente*, iniciaron la genealogía del género sin esperar a que lo bautizara Wolfe. Hubo quien in-

cluso contó su agonía, como el periodista comunista checo **Julius Fucik**, que dejó escrita su estancia en las mazmorras de la Gestapo antes de ser ejecutado. Sus compañeros de la Resistencia salvaron sus papeles manuscritos, publicados como *Reportaje al pie de la horca*.

Para cuando Wolfe etiquetó el género, **Truman Capote** ya había publicado su inmortal *In cold blood* (1967), traducido al euskera -*Odol Hotzean*- y al castellano -*A sangre fría*-. El asesinato de una familia en una granja de Kansas forma parte ya del imaginario colectivo de millones de personas de todo el planeta gracias a la exhaustiva y subyugante narración que tejió Capote. En aquel tiempo, **Rodolfo Walsh** ya era famoso por su *Operación Masacre* (1957), libro que nació a partir de una frase que un amigo le susurró al oído en un bar bonaerense: “Hay un fusilado que vive”. Fue el inicio de una investigación cuyo resultado narró con maestría para dar cuenta de una sarracina de civiles a cargo del ejército argentino, el mismo que acabó con él veinte años más tarde. Y **Elena Poniatowska** había terminado en 1971 *La noche de Tlatelolco*, una crónica de primera mano de la matanza de estudiantes perpetrada en 1968 en la plaza de las Tres Culturas de Ciudad de México. **Ryszard Kapuscinski** ya era un referente con sus crónicas y libros sobre zonas de conflicto, algunas convertidas en hitos, como *Ébano* o *Kristo fusilarekin*.

Desde entonces el periodismo literario ha llegado al premio Nobel, con **Svetlana Alexievich**, que ha recogido

las voces de los habitantes de la Unión Soviética en libros duros pero muy reveladores como el que traslada los testimonios de mujeres que lucharon en la Segunda Guerra Mundial, traducido al euskera -*Gerrak ez du emakume aurpegirik*- y al castellano -*La guerra no tiene rostro de mujer*-.

Por su parte, **Leila Guerriero** ha publicado en 2024 el desgarrador *La llamada*, el caso real de **Silvia Labayru**, milagrosa superviviente al terrorismo de Estado de los “milicos” argentinos. Y este año ha visto la luz *La dificultad del fantasma*, en el que rehace la estancia de Truman Capote en Catalunya mientras escribía *In Cold Blood*.

Euskal Herria también ha realizado aportaciones relevantes. Nos podemos retrotraer a los inicios del periodismo en euskera con las crónicas marineras de **Batxi Bilbao**, escritas en la Primera Guerra Mundial (1914-16) y recopiladas en *Hau mundo arrano hau*. En los últimos años ha destacado sobremedera **Miñan**, la odisea migrante de **Ibrahim Balde** narrada en euskera por **Amets Arzallus**, traducida a media docena de lenguas, convertida en obra de teatro y recomendada hasta por el papa Francisco. También ha obtenido gran eco *Potosí*, de un especialista como **Ander Izaguirre**, apasionante viaje a la realidad histórica y actual del famoso cerro minero boliviano.

TOMAS ZABALLA
Periodista

EUSKARAZKO PROSA HOMOLOGARRI BATEN ALDE

Altonagak Pamiela argitaletxearekin argitaratu duen zortzigarren saiakera da *Patrizioak eta plebeioak*. Gure prosaren emergentzian liburua, eta horrekin aspaldikoa duen prosaren gaineko kezkarik segida eman dio, esate baterako, *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015) edo *Duvoisin kapitainaren malura* (Pamiela, 2018) saiakeren ondoren.

Liburuan euskal prosaren bilakaera errepasatzeko ahalgina egin du idazle bizkaitarrak eta ildo horretatik prosaren emergentzia-prosezuaren sei unetara hurbilduko du irakurlea historiako sei alditan geldialdia eginda eta kronologia horretan hainbat gertakari kuestionatuta. Lehenik, **Peñaflorida** kondearen *Borracho burlado, ópera cómica* (1764) obra espainieraz idatzi izanak agerian uzten du ilustratuek ez zutela euskarazko diskurtso kulturik garatu. **Axularrek** eta gainerako klasikoek, aldiz, euskararen prosa europarrarekin parekatzeko moduko mailara eraman zutela uste du egileak. Hala ere, diglosiak berehalako gainbehera ekarri zuen: euskarazko liburuak ez ziren asko, eta horiek behe-mailako hitzunei zuzenduta omen zeuden. Hirugarren atalean Mogeldarren lanek euskararen funtzio subsidiarioa



PATRIZIOAK ETA PLEBEIOAK
Kepa Altonaga
PAMIELA

erakusten dutela deritzo, batez ere, elite ilustratuen tzako diskurtso didaktikoetan. Azkenik, Oñako jesuiten inguruko "The Oña connection" deituriko atalak euskararen kultibaziorako saiakerak biltzen ditu. Haatik, aha- legin horiek, ez ziren gai izan euskal prosa modernorik eratzeko. Purismoaren inertziek kateaturik, egilearen ustez, ezin da oraindik euskarazko prosa homologagarri bat garatu eta horren alde egin behar dugula dio.

LEIRE PALACIOS
Kazetaria

KAZETARITZA ZAINETAN



**MARTXELO OTAMENDI,
HANDIRA JOTZEKO KAZETARITZA**
Garbiñe Ubeda
BERRIA/ELKAR/JAKIN

Balentria hark beste balentria bat ekarri zuen jarraian, egunkaria mundura sortzea bezain handia eta ezinbestekoa: irautea. Izan ere, ekinaren ekinez sortutako hura mamiz bete beharra zegoen, eta aktualitateak eskatzen duen bezala, ertz askotatik. Egunero. Kale egin gabe. Baldintzak nahi baino gordinagoak izan arren.

Erresistentziaren logikak gidatu zuen beraz abiaburu hura, harik eta egunkariak zuzendari berri bat behar izan zuen arte. Halaxe heldu zen **Martxelo Otamendi** euskal komunikabide nazionalera. Ez zen medio idatzian

zaildua, han eta hemen egindako kolaborazioak gorabehera; ezta kazetaritza lanetan sobera aritua ere, euskal telebistan magazinak zuzentzen eta programak aurkezten aritua bazen arren. Baina, konturatzerako, iraultza txiki batean sartu zituen lankideak. Aurreiritziek mugatuko ez zuten jardunbidea izan zuen bere lehen premisa —euskarak ez duela bigarren mailako egiten—; eta helburu garbi bat, taldeko kazetariekin eta gainontzeko lankideekin burutzeko: lehen mailako komunikabide bat, bere horretan askia, noranahikoa eta konplexurik gabeta osatzea, egunero, salbuespenik gabe.

Martxelo Otamendi. Handira jotzeko kazetaritza el-karrizketa liburuak bide horretan akuilu izan den pertsonaren izaera jartzen du agerian. Bere ahotik, *Euskaldunon Egunkaria*-ri, haren bortxazko itxierari eta *Berria*-ri ematen zaio errepasoa, baita bere gaztaroari eta euskara irakasle gisa eman zituen urteei ere. Baina zutabegilea eta analista ere bada Otamendi, eta kazetaritza zainetan daramanaren pasioaz dihardu hainbat gai korapilatsuren inguruan: Katalunia, lan harremanak, euskararen aurkako oldarraldia, tortura, teknologiak ezarritako ataka berriak.... Urte askotako lekukotza bizi eta konprometitu bat da harena.

GARBIÑE UBEDA
Idazlea

EL THRILLER PSICOLÓGICO QUE TE LLEVARÁ AL LÍMITE DE TUS EMOCIONES

PAUL PEN
EL BRILLO DE LAS LUCIÉRNAGAS

PAUL PEN
EL CANTO DE LOS GRILLOS

DESCUBRE LA NUEVA NOVELA DE **PAUL PEN**

MÁS DE 300.000 LECTORES ESPERAN LA ESCALOFRIANTE CONTINUACIÓN DEL FENÓMENO VIRAL DEL AÑO

PLAZA JANÉS

Eskutik eskura, Berria

Euskaraz bizitzea da inguruan eta eguneroko jardura euskaraz egitea ahal den guztian eta ahal den guztiekin, baina ez da horra mugatzen, euskaraz bizitzea bada ere euskara entzunera, irakurrira eta idatzira eramatea ere.

Badakigu gure inguruak eskaintzen diguna batez ere erdaretan eskaintzen digula, aukera zabalagoa dugula euskaratik kanpo euskaraz baino egunkarietan, liburuetan, arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan... gure bizitzako arlo guztietan. Baina errealitatea da, hala ere, euskaraz ere badela zer ikusi, zer entzun, zer irakurri. Erdaraz dagoena gehiago izateak ez du esan nahi euskaraz ez dagoenik, eta ez du esan nahi alde batera utzi behar dugunik, besteak beste euskaraz eskaintzen denak badielako gainerako hizkuntzatan topa dezakegunaren pareko kalitatea.

Testuinguru horretan, **elkar** Fundazioak ere bat egin du #eskutikeskuraberria ekimenarekin, euskaraz irakurtzera animatu eta berrialagun egitera dei eginaz, uste baitugu merezi duela euskaraz bizitzen jarraitzeko urrats txiki bat egitea, eta bai baitakigu **Berria**-k egunero mundua euskaratik eta euskaraz azalduko digula, hizkuntzak berak emango digun gertutasunak errazago egingo digula inguruan gertatzen dena ezagutzea. Horrez gain, ondo dakigu euskal egiturak -izan komunikabideetan, izan kulturaren, izan euskalgintzan...- sortu eta mantentzea zenbat kostatzen den, eta guztion egitekoa da euskal gizarteak hainbesteko lan ez martxan jarri dituen eta gure esku jarri dituen egitura eta produktu horiek mantentzeko lanean jarraitzea.



ARGAZKIA: BERRIA

elkar Fundazioak beti izan du borondatea taldeko langileei euskaraz bizitzen laguntzeko eta horretarako, besteak beste **Berria**-ren harpidetza eskaintzen du langileen artean. Hala nahi duen langileak Berria egunkariko harpidetza egiteko aukera du eta Fundazioak bere gain hartzen du horren gastuaren %75, bertako kideak euskaraz bizitzea errazteko, eta, bide batez, **Berria** berari sostengua emateko aukera delako, uste baitugu euskal egunkari nazional bakarrari eustea eta hura hobetzen eta handitzen joatea euskaldun guztiontzat

zein euskararentzat dela beharrezkoa. Zenbat eta egunkari indartsuago izan, orduan eta sendoago euskara bera ere.

Orain arte bezala, langileei **Berria**-ko harpidedun edo berrialagun izaten laguntzen jarraituko du Elkar Fundazioak eta animatu nahi zaituzte guztiok bat egin dezazuen ekimenarekin, izan zaitezten berrialagun, eta batez ere har dezazuen ohitura, paperean edo sareetan, euskarazko egunkaria irakurtzeko, munduari euskararen begiekin begiratzeko



elkar sariak:

Zenbat Gara elkartea eta Kanaldude telebista

Udako aldizkarian aurreratu genuen bezala, aurtengo **elkar** sariak ere banatu dira. Ekainean Bilboko Kafe Antzokian egin zen ekitaldian banatu ziren. Zenbat Gara elkarteak ibilbideari saria jaso zuen, urteetan egindako lana gogora ekartzeko eta lanean jarrai dezan. Gotzon Huegun eskultoreak egindako ikurra jaso zuten fundazioko ordezkarien eskuetatik. Kanaldudek, berriz, Proiektuari saria jaso zuen, 10.000 euroko laguntza etorkizunera begira dituzten erronkei aurre egiten laguntzeko.

Joxe Azurmendi, pentsalari euskalduna

1941ean jaio zen Joxe Azurmendi Zegaman, gerra ondorengo giroan. Hamar urte zituela aterra zen etxetik Arantzazura joateko, berak hala nahita. 16 urte zituela, Arantzazutik Erriberriera filosofia ikastera joan zenean, berreskuratu omen zuen Euskal Herriaren kontzientzia eta euskara, aurreko urteetan, frankismo beteko debekuen ondorioz galdua zuen; Campion-eta irakurtzeak lagundu omen zion horretan. Handik berriro itzuli zen Arantzazura teologia ikastera, eta orduan hasi zen **Jakin** aldizkarian ere.

Arantzazutik Forura eta handik Europara, Erroma eta beste hiri batzuetatik pasatu ondoren Alemaniara iritsi zen eta bertan hamar bi urte egin zituen, ikasten lehen urteetan eta ondoren eskolak ematen ere bai. Alemaniari lotuta egin du bizitza ondoren, baina, abiaburu Euskal Herria izanik, euskaltasunetik egin izan du beti lan.

Euskal pentsalaria izan da. Garaiko gai nagusien inguruan sakontasun handiz pentsatu izan zuen eta nagusiki gizatasunaz. 20 urte betetzerako argitaratu zuen lehen artikulua **Jakin**-en eta handik aurrera poesia liburu bat eta berrogeiren bat saiakera-liburu eta ehunka artikulua argitaratu zituen bere bizitzan – guztiak ditugu eskura jakin.eus webgunean –, pentsatutakoa bere inguruarekin partekatu baitzuen.

Pentsalaria izan da eta ekintzailea ere bai. **Jakin** aldizkariari 20 urte bete orduko lotu zitzaion, eta Jakin Fundazioko Patronatuko kide dela hil da. UEUren sorreran parte hartu zuen. Elkar argitaletxea sortzerakoan ere egin zuen bere ekarpena, Ipar Euskal Herriko hogeiki euskaltzaileei gehitu zitzaizkien Hego Euskal Herriko beste hogeien artean zen Azurmendi.



ARGAZKIA: ELKAR

Euskaldunon Egunkaria sortzerakoan ere han ibili zen. Jakin taldekoa izan zen batez ere, Jakineko talde historikoa deitu izan zaioneko kide Joan Mari Torrealdairekin, Joseba Intxaustirekin eta Paulo Agirrebaltzategirekin batera, eta amaiera arte izan zuen lotura Elkar-ekin ere, **elkar** Fundazioko Patronatuko lehendakariorde hainbat urtez eta ohorezko kide azken urteetan.

Azurmendik bere ekarpena euskara eta Euskal Herria erdigunean jarrita egin zituen, eta haren argitalpenak ere euskaraz eskaini zituen, batez ere pentsalari euskalduna izan baitzen. Munduaz galdera egiterakoan euskal egoeratik edo izaeratik egin izan zuen, Euskal

Herriko errealitateari uko egin gabe, inguruan gertatzen ari zena ulertu nahian eta Euskal Herria eta euskaldunak askeago egiten laguntzeko asmoz. Hala esan zuen berak: “Hala, nik idatzi dudana, guztion borroka eta premietatik idatzia da. Literatoak askatasunetik idazten badu, euskarazko saiogileak, onenean ere, askatasunerako”.

Pentsalari handia izan da bizitza osoan, Euskal Herria eginkizun duela ibili dena, etengabe haren alde lanean. Maisu handi bat itzali zaigu, baina haren lana utzi digu, non ikasi eta nondik jo.

Ez adiorik Joxe, Elkar Fundazioa osatzen dugunok ez zaitugu ahaztuko!





La nueva Guía de Setas de Euskal Herria ofrece a todas las personas interesadas en la micología un instrumento eficaz para iniciarnos o profundizar en nuestras salidas seteras. Llega en dos versiones (euskera y castellano) y pone a nuestro alcance unas trescientas especies.

Hablar de setas en Euskal Herria es hablar de una pasión que va más allá del mero placer gastronómico. Se disfruta con la recolección, con el descubrimiento y el conocimiento de las diferentes especies y, por supuesto, con la puesta en el plato.

Recolectar setas puede ser una excusa como otra cualquiera para ir al monte, descubrir un bosque, una pradera o un valle, puede ser el complemento ideal en una salida. Saber diferenciarlas, conocerlas, emplear las

maneras adecuadas a la hora de recogerlas... resulta primordial.

Esta guía de campo recoge unas trescientas especies, las más comunes y conocidas por las personas aficionadas al mundo de los hongos, con información sobre los elementos macroscópicos que nos permiten, no solo identificarlos, sino reconocer sus características y advertir sus parecidos y diferencias, así como establecer si son comestibles o generan toxicidad.

De la recopilación de nombres populares que son atribuidos a las setas en pueblos y regiones, tan sólo he incluido los de aquellas especies que son realmente representativos. A este respecto hay que decir que, a pesar del tiempo transcurrido desde el inicio del estudio y primeras clasificaciones por los padres de la micología, el holandés Persoon y el sueco Fries, resulta complejo presentar una nomenclatura micológica actualizada. Hemos procurado ofrecer una visión lo más contrastada posible de las especies, aunque algunas de ellas tengan hoy en día nombres que en breve podrían quedar como sinónimos. También he intentado aportar un amplio glosario de términos micológicos que ayude en las descripciones.

En esta guía presento la evolución que experimenta la Micología en la actualidad a causa de los estudios moleculares y filogenéticos (ADN) que ahora se exige y los continuos cambios en su léxico, así mismo expongo una visión de la diversidad de setas que habitualmente encontramos en Euskal Herria, con la información precisa, fruto de la larga experiencia adquirida en el trabajo de campo, que se remonta a más de cincuenta años.

Los textos tienen en las imágenes el complemento ideal, ya que he seleccionado y cuidado la fotografía para que no sea solo algo estético y atractivo, sino que sea útil en el reconocimiento de la especie en cuestión. El resultado no puede ser mejor. Esta guía de campo es amena, rigurosa, ofrece sugestivas imágenes que dan fe de la enorme variabilidad de los hongos y la exquisita polimorfía de sus fructificaciones.

CRISTÓBAL BURGOS
Fotógrafo y micólogo




EUSKAL HERRIKO PERRETIXIKO GIDA

Euskal Herriko perretxiko gida berriak tresna eragingarria jarri nahi du zaletu guztion esku, perretxikotan mendira goazenean zertan gabiltzan jakin dezagun. Euskaraz eta erdaraz liburu banatan argitaratu da eta, orotara, hirurehun bat espezieen berri ematen du.

Euskal Herrian perretxikoak plazer gastronomikoa baino askoz gehiago dakarren zaletasuna dira. Gozatu egin dugu bilketan, espezieen ezagutzan eta, jakina, dastaketan. Perretxikotan joatea aitzakia ederra da mendira joateko, baso, zelai edo ibar eder baten barrena ibiltzeko, txango zoragarri bat osatzeko. Perretxikoak ezberdintzen jakitea, ezagutzea, nola batu behar diren jakitea... ezinbestekoa da.

Gida honek hirurehun bat espezieen berri ematen du. Euskal Herrian ohikoenak dira eta zaletuek gehien ezagutzen dituztenak dira. Informazio zehatza erantsi diot ze espezie den aise jakiteko, ezaugarriak jaso, antzekotasunak eta desberdintasunak zehaztu eta jangarriak diren ala ez ebatzi ahal izateko. Izenei dagokienez, zientifikoak gain, benetan zabaldua daudenak besterik ez dut jaso. Gida hau berrogeita hamar urtetako lanaren emaitza da. Testuei irudiek ematen diete behar duten osagarria. Izan ere, argazkiak, estetikoak ez ezik, espeziea zein den jakiteko baliagarriak dira. Horren ondorioz, emaitza bikaina da, gida zehatza eta atsegina, perretxikoen mundu zabal eta koloretsuaren berri modu erakargarrian ematen duena.



CONSIGUE UN BIENESTAR INTEGRAL

5

semanas de recetas y rutinas con
Blanca García-Orea

Grijalbo



NOBEDADEAK



EUSKAL HERRIA EGUTEGIA 2026

Batzuk
SUA EDIZIOAK

Ohiko El Mundo de los Pirineos egutegiaz gain, 2026rako Sua Edizioak-ek Euskal Herria egutegia ere plazaratu du formatu berean. Argazki ederrez hornituta dator, eta euskara hutsez.



INSTADRAMA ALPINO

Lara Magdalena Huertas
DESNIVEL

En la travesía Helbronner dos alpinistas sufren un accidente y caen en una grieta del glaciar. Tras el rescate él permanece inconsciente y ella se percata de que padece una laguna en su memoria.



TÚNEZ. CARNET DE VIAJE

AAVV
ALHENA

Esta colección está destinada a todos los viajeros que realizan estancias cortas y buscan una guía completa. Ofrece todos los consejos y recomendaciones necesarios para sacar el máximo partido al viaje.



BRUSELAS, BRUJAS, AMBERES Y GANTE

AAVV
DORLING KINDERSLEY

La Guía Top 10 de Bruselas muestra lo mejor en prácticos listados: los diez museos imprescindibles, los diez personajes más ilustres o incluso las diez cosas que tienes que evitar.



IBILBIDE GEOLOGIKOAK

Arturo Apraiz
SUA EDIZIOAK

Euskal Herria bildumako liburu honek gure herriko paisaiekin gozatzeko beste bide bat eskaintzen digu, irakurketa geologikoa eginez zer ikusten ari garen azaltzen baitigu, modu erraz eta praktikoa.



100 FINES DE SEMANA POR EUROPA (LONELY PLANET)

Claire Angot
GEOPLANETA

A través de cien itinerarios cuidadosamente diseñados, este libro te lleva desde los majestuosos fiordos de Noruega hasta las islas más recónditas del Mediterráneo. Con mapas, recomendaciones y consejos prácticos.

JONE BORDATO

Jone Bordatok (Hazparne, 1984) bere lehen liburua kaleratu berri du: *Erroen izerdia*, hiru istorio luzez osaturiko triptikoa, pertsonen emozio sakon eta usu ezkutueta arakatzeko duena.



ERROEN IZERDIA
Jone Bordato
ELKAR

Hasteko, nor da Jone Bordato?

Nor naizen jakinen dudala uste dut biziaren bukaerara helduko naizelarik! Halere nitaz zerbait errateko, bi-daiatzak pizten nauela erran nezake. laz, hilabete eta erdiz, bertan lo egiteko antolatzen nuen Kangoo-arekin, Frantzia gaildi ibili nintzen. Akupuntorea naizenez, orratzak eraman nituen, eta joaten nintzen lekuetan akupuntura saioak egiten nituen. Jendearekin ezohiko momentuak partekatzen aukerak irekitzen zizkidan. Nahiz eta ez urrun joan, bidaia zoragarria izan zen, gogorotasunarekin azkarki konektatu ninduelako.

Lehen liburua idazteko gogoa orain piztu zaizu ala aspalditik zetorren?

Nerabezartotik idatzi izan dut, baina luzaz enetako egiten nuen, burua husteko ala emozioak askatzen laguntzeko. Lehen ipuina idazten hasi nintzelarik, aldiz, duela hamar urte pasa, gogoratzen naiz ene buruari erran niola: zer eta nola idatziko zenuke irakurle batentzat egiten bazenu? Orduan, hala ere, ez nuen pentsatzen ipuin hura liburu batean agertuko zenik.

Hiru istorio bildu dituzu liburuan, ageriko loturarik gabeak. Azpian bada denak lotzen dituen zerbait?

Nahiz eta hiru ipuinak oso desberdinak diren, zerbait dute amankomunean: protagonisten bestelakotze prozesuak kontatzen dituzte. Haien baitan gordeak dituzten baldintzapenak argitan ezarri bizi dituzten askapenak. Erroen izerdiak haien baitan gordea dena, oraindik ikusi gabekoa adierazten du. Neurri batean baldintzatzen dituen. Baina ohartzen diren arau, beren buruaz duten hautemateak askeago izanarazten ditu.

Lehen istorioan protagonistak bere iraganeko harremanetan arakatzeko du...

Ana, protagonista, bereizketa baten ondoren etsitua da. Ezin daiteke berriz zutitu. Badirudi bere arimaren zati bat bereizi den gizonari lotua gelditu zaiola. Ipuinak berri osatzeko egiten duen barne ibilbidea kontatzen du.

Bigarren istorioan leku nabarmena hartzen du talde identitateak...

Bai, nahiz eta ipuinak, ororen aitzinetik, bi pertsonaren arteko topaketa kontatzen duen. Bizitzan ezagutza garrantzitsuek, maitasun topaketek adibidez, beti zerbait aldatzen dute jendearen baitan. Bestenaz ez dira hain garrantzitsuak. Istorio honetako pertsonaia espainola eta euskalduna dira. Haien artean sortzen den harremanak, narratzailea eta euskalduna den protagonistak

bere buruaz duen hautematea nola mugiarazten duen kontatzen du.

Hirugarren istorioak bi ahizpa aurkezten dizkigu, eta familia sekretu ezkutu bat...

Denbora luze baten ondoren, bi ahizpak berriz elkartzen dira. Amaiak, gazteenak, kanpoan bizitzen egon eta gero, herrira itzultzea erabakitzen du eta ahizparekin partekatzen duen sekretu astunegia gurasoei adieraztea, familiarekiko leialtasunaz askatuz.

Lehen liburu honen ondorengo gehiago ere etorriko dira?

Ez dakit honen ondorengo beste liburu bat izan denetz. Baina ziur dena hau da: udazken-negu honetan idazten pasa ditudan orduak anitz gozatu ditudala. Beraz, espero dut beste gai bat agertuko zaidala, zeini buruz idatzi. Halere, ez naiz egiazko idazle sentitzen, beraz, ageriko, gogo eta inspirazioaren arabera.

TERESA LARREA
Kazetaria

Zatoz!
URRIAK 19
Oinez
ATARRABIA 2025

buruz,
bihotzez,
zinez

Zure ekarpenarekin, etorkizuna eraikitzen.

Zure babesari esker, euskal kulturaren eta komunikazioaren etorkizuna egiten ari gara, egunero.



Euskal komunitateari zerbitzua eskaintzen dion hedabidea gara, Euskarazko ikus-entzunezkoak ekoitzi eta hedatzen ditugu euskarazko komunikazio esparrua sustatuz eta informazio aniztasuna bermatuz.

Zure ekarpena funtsezkoa da.

Zure babesarekin:

- Kalitatezko ikus-entzunezkoak sortzen ditugu
- Euskara eta euskal kultura indartzen ditugu
- Komunitate sendoa eraikitzen dugu

Egin zaitez Hamaikakide
www.hamaika.eus/fundazioa



Egin zure ekarpena. Eraiki dezagun elkarrekin etorkizuna.

EL LIBRO QUE CAMBIÓ LA FORMA DE EDUCAR A NUESTROS HIJOS

Comprender cómo funciona el cerebro de las niñas y niños resulta fundamental para padres y madres para mejorar los cuidados que les ofrecen y la relación que les une. Este libro de Álvaro Bilbao ofrece algunas claves a la luz de los conocimientos científicos actuales.


En septiembre de 2015, un joven neuropsicólogo padre de tres niños pequeños y formado en el hospital Johns Hopkins de Baltimore, publicaba *El cerebro del niño explicado a los padres*, un libro que ayuda a las familias y a los educadores a entender el gran potencial del cerebro infantil y de su desarrollo durante los primeros años de vida. Una década, 39 ediciones y más de 400.000 ejemplares después, este clásico de la divulgación se ha traducido a 25 lenguas y ha contribuido a cambiar muchos aspectos del paradigma educativo en todo el planeta y, también, a transformar nuestra propia mirada hacia los niños, su mundo y su manera de iniciarse en él.

Durante los seis primeros años de vida el cerebro infantil tiene un potencial que no volverá a tener. Esto no quiere decir que debamos intentar convertir a los niños en pequeños genios, porque además de resultar imposible, un cerebro que se desarrolla bajo presión puede perder por el camino parte de su esencia.

Este libro es un manual práctico que sintetiza los conocimientos que la neurociencia ofrece a los padres y educadores, con el fin de que puedan ayudar a los niños a alcanzar un desarrollo tanto intelectual como emocional lo más pleno que sea posible.


Esta edición limitada, conmemorativa de su décimo aniversario, incluye un nuevo prólogo a cargo del propio Álvaro Bilbao y contenidos adicionales para acercarnos de nuevo, o por primera vez, a uno de los libros sobre educación más influyentes de la última década.

El doctor **Álvaro Bilbao** es neuropsicólogo, doctor en Psicología de la Salud y padre de tres hijos. Se ha formado en instituciones de referencia como el hospital Johns Hopkins y ha colaborado con la Organización Mundial de la Salud (OMS). Ha sido invitado como experto en desarrollo infantil por la Unión Europea y ha dedicado su carrera a ayudar a padres y docentes a entender el potencial del cerebro infantil.



**EL CEREBRO DEL NIÑO
EXPLICADO A LOS PADRES**

Álvaro Bilbao
PLATAFORMA



INVICTO
Marcos Vázquez
SALUD SALVAJE

Un método para transformar la disciplina en libertad. Un fenómeno editorial con 200.000 ejemplares vendidos. Eso es, hoy en día, *Invicto*, la guía de Marcos Vázquez para aprender a pensar. El entrenamiento mental

La calidad de nuestra vida depende, en gran medida, de la calidad de nuestra mente. Sin embargo, dedicamos muy poco tiempo a entrenar nuestros pensamientos, y nadie nos enseña a hacerlo. Como resultado, vivimos sin comprender cómo funciona nuestra mente ni cómo aprovechar su verdadero potencial.

Tenemos en nuestro interior el órgano más sofisticado del universo, pero no sabemos utilizarlo. Muchas personas no logran enfocar su energía mental en los objetivos que de verdad desean. Se distraen, se frustran, ceden ante la tentación y se rinden ante la dificultad. Por suerte, la mentalidad se puede entrenar. Y eso es lo que aprenderemos con este libro. Descubriremos cómo pensar con claridad, actuar con determinación y resistir con disciplina. Porque ningún cambio externo es posible sin una transformación interna. Si queremos cambiar tu cuerpo, debemos empezar por nuestra mente.

Invicto es más que una guía de hábitos: es una inv-

